

KANBOKO HERRI BILTZARRAREN

2025eko APIRILAREN 9ko

BILKURA AKTA LABURRA

Presente ziren: Christian Devèze, Auzapeza, Eliane Aizpuru, Jean-Noël Magis, Yolande Huguenard, Didier Irastorza, Robert Poulou, Christiane Hargain-Despéries, Vincent Goytino, auzapezordeak, Corinne Othateguy, Jean-Paul Eyherachar, Isabelle Ayerbe, Roger Barbier, Bernadette Remeau, Sébastien Carre, Joana Lacarra, Jean-Pierre Gogny, François Hayet, Peio Etxeleku (19:45etik goiti), Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerreri, Jean-Paul Alaman, Alain Boscq, Xabier Heguy, herri biltzarkideak.

Ezin etorriak: Marie Aristizabal, auzapezordea, Jean-Jacques Lassus, Carmen Gonzalez, Jean-François Lacosta, Argitxu Hiriart-Urruty, Amaia Beyrie, herri biltzarkideak.

Ahalordeak: Marie Aristizabalek Yolande Huguenardi; Jean-Jacques Lassusek Christian Devèzeri; Carmen Gonzalezek Christiane Hargain-Desperiesi; Jean-François Lacostak Peio Etxelekuri; Argitxu Hiriart-Urrutyk Nathalie Aïçaguerreri; Amaia Beyriek Alain Boscqi.

– Saioko idazkariaren izendapena.

Presente ziren kideek aho batez izendatu dute Joana Lacarra anderea saioko idazkari izateko.

19:45 arte

Herri biltzarkideen kopurura	29
Presente diren herri biltzarkideak.....	22
Ahalorde kopurua.....	6
Hor ez diren kopurua.....	6

19:45etik goiti

Herri biltzarkideen kopurura	29
Presente diren herri biltzarkideak.....	23
Ahalorde kopurua.....	6
Hor ez diren kopurua.....	6

– Solasgaiak:

001 - Ezker-paretaren eraberritzea: diru-laguntza eskaera eta finantzazio planaren onarpena.	2
002 - Euskal Elkargoa: GRALL zerbitzua herriaren alde ezartzeko hitzarmena.....	3
003 - Utzikeria egoeran dauden behin betiko kontzesioen berriz hartzea: gela-hilobien salmenta prezioaren finkatzea.	5
004 – Tokiko zergak: tasen finkatzea.....	6
005 - Elkarteen diru-laguntzak.	7
006 - GEUZarentzako diru-laguntzak.	10
007 - Eskolen kutxarentzako diru-laguntza.	10
008 - Hautetsien ordainsarien urteko egoera-laburpena.....	11

009 - Finantzak: kredituak atal batetik bestera pasatzea M57an. 11

010 - Aurrekontu nagusia: 2024ko emaitzaren esleipena. 12

011 - Hilobi eta kolunbarioen aurrekontu erantsia: 2024ko emaitzaren esleipena..... 13

012 - Aurrekontu nagusia: 2025eko hasierako aurrekontuaren bozkatzea. 13

013 - 2025eko Programa Baimenak eta Ordainketa Kredituak (PB/OK - AP/CP). 19

014 – Programa Baimenak eta aurreikusi ez diren gastuen esparruan Engaiatzeko baimenak. 20

015 – Hilobi eta kolunbarioen aurrekontu erantsia: 2025eko hasierako aurrekontuaren bozkatzea. 21

016 – Egonaldi zerga: 2025eko urtarrilaren 1eko salneurriak. 22

001 - Ezker-paretaren eraberritzea: diru-laguntza eskaera eta finantzazio planaren onarpena.

ERABAKIA:

Eyherachar jaunak, kontseilari delegatua, oroitarazi du duela kasik hamar urte herriak kirol jarduerak bultzatzeko nahia erakutsi duela, izan aisialdirako edo lehiaketa asmo batekin. Borondate horren isla dira herriak bultzatutako hainbat proiektu, hala nola skate-parkearen sortzea, edo tenis zelaien estaltzea.

Michel Labéguerie kirol eremua biztanleentzako azpiegitura ederra da. Herriak eremu horren iraunkortasuna eta modernizazioa bermatu nahi ditu, besteak beste ingurumen erronkei aurre egiteko, zeinak datozen urteetan ezinbestean azaleratuko baitira.

2022ko azaroaren 7ko erabakiz, Herri Biltzarrak ezker-paretaren eraberritze proiektua onetsi zuen eta lanen esleitzeko deialdi publikoa abiatzea ere onetsi zuen.

Hautagaientzako deialdi publikoa argitaratu zen. Deialdia 2024ko abenduaren 26an bukatu zen eta deialdien batzordea 2025eko urtarrilaren 24an bildu zen eskaintzen analisia txostena aurkezteko. 2025eko otsailaren 14an, Auzapezak lan horien egiteko merkatuak izenpetzeko erabakia hartu zuen.



Lanak 2025eko uztailaren lehen astean hastekoak dira. Frantziako Kirol Agentzia Nazionalak 2025eko martxoaren 14an proiektu deialdi bat plazaratu zuen, eta herriaren proiektuak haren helburuekin bat egiten duenez, diru-laguntza eskaera bat egitea proposatzen du.

Gauza bera gertatzen da Euskal Hirigune Elkargoaren eskuhartze funtsekin (lurralde eremurako moltxa), zeinak proiektuaren kostu zehatza eskatzen baitu eskaera aurkeztu baino lehen. Merkatuak izenpetuak izan direnez diru-laguntza eska dezakegu.

Ekintzaren kostu orokorra, barne direlarik zati finko guztiak, Menturazko Ekintza Gehigarriak eta finko bilaka daitezkeen hautazko zatiak, 1 936 614,33 €koa da. Zenbateko hori oinarri hartuz egin behar dira ezker-paretaren eraberritzeko aipatu diru-laguntza eskaerak.

Zenbatekoa honela banatzen da:

Ezker-paretaren eraberritzea				
Gastuak (ZK)		Sartzeak		
Xehetasunak	Zenbatekoa (ZK)	Finantzazio esparrua	Zenbatekoa	Ehunekoa
Ikerketa, obra koordinazioa eta azterketa teknikoa	109 794,94 €	DETR 2024	159 135,00 €	%8,22

Lanen zenbateko orokorra (hautazko zati gehigarri guztiak finkaturik)	1 826 819,39 €	Departamendua - Proiektu deialdia	341 190,00 €	%17,62
OROTARA	1 936 614,33 €	Euskal Elkargoa - Eskuhartze funtsa - Lurralde eremuko moltxa	136 251,00 €	%7,04
		Frantziako Kirol Agentzia	387 322,87 €	%20,00
		Autofinantzazioa	912 715,46 €	%47,13
		OROTARA	1 936 614,33 €	

Herri Biltzarrak, Eyherachar jaunaren azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari herriaren partaide ororengana jotzeko ahal bezainbat diru-laguntza ukateko

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari, gai honi datxikon dokumentu oro izenpetzeko eta behar den egintza oro egiteko ekintza ongi burutu dadin.

HITZ HARTZEAK:

Nathalie Aïçaguerre andereak aipatu du lanengatik Jeikadi dantza taldearen dantza kurtsoak ohiko gelan ezingo direla egin. Galdetu du beste gelarik eskura ezartzen ahal zaien errepikak egin ahal izateko.

Auzapezak zehaztu du gela erabilgarria izanen dela lanen denboran, beraz ez dago arazorik ohiko gela erabiltzeko.

Alain Boscq jaunak galdetu du zenbat iraunen duten lanek.

Zerbitzu Teknikoetako Zuzendariak azaldu du lanen prestaketa fasea 2025eko maiatz erditik ekain bukaerara iraganen dela, lanak 2025eko uztailan hasiko direla eta bukaera 2026ko agorrilean aurreikusten dela.

002 - Euskal Elkargoa: GRALL zerbitzua herriaren alde ezartzeko hitzarmena.

ERABAKIA:

Magis jaunak honakoa azaldu du:

Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L2143-3 artikulua segituz, Euskal Hirigune Elkargoak eta bere eremuko 5 000 biztanletik gorako 15 herriek badituzte herriarteko irisgarritasun batzorde bat eta herriko irisgarritasun batzordeak.

Honakoa da batzorde horien zeregina:

- Existitzen diren eraikinen, bideen, eremu publikoen eta garraioen irisgarritasunaren egoera-akta egitea.
- Elbarritu eta ezinduen ezintasunaren arabera irisgarritasuna zehaztea, eta Frantziako garraioen kodeko L1121-1 artikulua zehazten dituen lehentasunezko geldiguneetatik berrehun metroko erradioan dauden ibilbide nagusiak zehaztea.

Paraleloan, Frantziako LOM legearen 27. artikulua dio beren eremuan lehentasunezko geldigune bat duten tokiko erakundeek geldigune horien inguruko 200 metroko eradio batean dauden eraikinei eta bide-errepideei buruzko datuak bildu behar dituztela.

Bilketa horren xedea da erabiltzaileei informazioa emateaenez, Euskal Elkargoak eta 5 000 biztanletik gorako herriak, irisgarritasun batzordeetan bildurik, lurralde osorako amankomuna eta denei irekia litzatekeen tresna digital baten erabiltzeko beharra adierazi zuten.

Zerbitzuek proposaturik, irisgarritasun batzordeetako hautetsiek GLORYTECH enpresak garatu Grall aplikazioa hautatu dute, zeinak erabiltzaileei geografikoki kokatutako informazio zerbitzua eskaintzen baitie. Hautua honako arrazoiengatik egin da:

- Aplikazioa hiru urtez esperimentatu da CEREMA, Glorytech eta Euskal Elkargoaren arteko lankidetzaren programa batean. Orain arte egin lanari esker Glorytech enpresak irisgarritasuna hobetzeko Erreferentzial orokorraren irizpideak osoki betetzen ditu eta honela proiektuko partaide diren elbarrituen elkarrean eskaerei osoki erantzuten die.
- Aplikazioa ahotsaren bidez agindu daiteke, erabiltzaile ororentzako eskuragarri izateko.
- Testu-edukiak bat-batean itzultzen ditu 64 hizkuntzatan, besteak beste euskara eta gaskoia.
- Erabiltzaileentzako %100 urririk da eta konturik ireki gabe erabil daiteke.
- Glorytech-ek ez du datu pertsonalik biltegiratzen eta saltzen.
- Aplikazioarekin erabiltzaileak geografikoki kokatutako informazioa jasotzen du. Protokolo anitzeko erabilera du (GPS, bluetooth, QR kodea, QR-light, NFC). Orotariko edukiak eduki ditzake (testua, irudiak, bideoak, audioa, estekak, fitxategiak).
- Aplikazioaren balioaniztuna denez erakundeek gauza askotarako erabil dezakete (informazioa zabaltzeko, alerta eman, animatu...) eraikinen barnean ala kanpoan.
- Aplikazioaren kudeatzailea osoki autonomoa da Grall informazio puntu baten sortzeko eta haren edukia osatzeko.
- Glorytech enpresak mundu mailako garapena espero du.
- Glorytech enpresak, bere karbono eragina konpentsatzeko, sortzen den informazio puntu bakoitzeko zuhaitzak landatzen ditu.

Irisgarritasun batzordeen sareetako hautetsiek, zerbitzu berri orok aurrekontuan izan dezakeen eragina murriztu asmoz, GRALL abonamenduaren bateratzeko aukera bat ikertu nahi izan dute.

Ikerketa egin-eta, arrazionalizazio kezka batekin, zerbitzuak eta elkartasuna behar bezala antolatzeke xedearekin, irisgarritasun batzordeetako hautetsiek GRALL zerbitzua eskuratzeko eta erabiltzeko baldintzak honela zehaztu dituzte:

- Euskal Hirigune Elkargoak du GRALL zerbitzua eskuratzen eta lurraldeko herrien eskura ezartzen du;
- GRALL zerbitzurako urteko abonamenduaren gastua Euskal Hirigune Elkargoaren eta 5000 biztanletik gorako herrien artean banatzen da (Angelu, Baiona, Biarritz, Bidarte, Bokale, Donibane Lohizune, Hazparne, Hendaia, Hiriburu, Kanbo, Mugerre, Senpere, Urruña eta Uztaritze) eta 5 000 biztanletik beherako 143 herriek urririk ukan dezakete.

Informazio gisa, 2025erako abonamendua 19 000 €koa (Zk) litzateke.

Elkargoaren eta herrien arteko banaketa honelakoa litzateke:

- Urteko abonamendua Zergaz Kanpo (ZK) 19 000 €
- Elkargoaren zati finkoaren kenketa 13 000 € (ZK) inguru
- Ondorioz, 6 000 € (ZK) geldituko lirateke partekatzeke: %70 Euskal Elkargoa eta %30 5 000 biztanletik gorako herrien artean.

Ororen buru, honakoa litzateke aurrekontua:

- 17 200 € (ZK) Euskal Elkargoa
- 1 800 € (ZK) 5 000 biztanletik gorako herriak
- Urririk 5 000 biztanletik beherako herrientzat.

Honakoaren eranskinean den hitzarmenak finkatzen ditu 2025eko urtarrilaren 1etik goiti indarrean izanen diren GRALL zerbitzua herriaren eskura ezartzeko baldintzak

IKUSIRIK, 2019ko abenduaren 24ko Frantziako 2019-1428 mugikortasunen norabide legea, eta bereziki haren 27. artikulua;

IKUSIRIK, Frantziako garraioen kodea, bereziki haren L. 1112-1 artikulua;

IKUSIRIK, Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorra eta bereziki L. 2143-3, L. 5216-5 eta L. 5211-10 artikulua;

IKUSIRIK, Lurralde Kolektibitateen Frantziako Kode Orokorra;

IKUSIRIK, Pirinio Atlantikoetako Prefekturaren 2016ko uztailaren 13ko 64-2016-07-13-011 ordenantza, Euskal Hirigune Elkargoaren sortzeari buruzkoa;

IKUSIRIK, Euskal Elkargoaren 2024ko urriaren 22ko batzorde iraunkorraren erabakia, non Grall zerbitzua eskura ezartzen den;

Herri Biltzarrak, Magis jaunaren azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

ONARTU DITU honakoaren eranskinean den hitzarmenaren baldintzak, Euskal Elkargoak eskuratu duen GRALL zerbitzua herriaren eskura ezartzeko;

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari edo haren ordezkariari behar den agiri oro izenpetzeko eta gaiari loturiko egintza oro.

Peio Etxeleku jauna gelara sartu da (19:45)

003 - Utzikeria egoeran dauden behin betiko kontzesioen berriz hartzea: gela-hilobien salmenta-prezioaren finkatzea.

ERABAKIA:

Auzapezak oroitarazi du, herriko hilerrian utzikeria egoeran dauden lekuen berreskuratzeko eta Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2223-17, L. 2223-18, R.2223-12 eta R. 2223-23 artikuluen arabera, herri biltzarkideek 2023ko abenduaren 12an erabaki zutela honako hilobi kontzesioak berriz hartzea.

- 319. zkia, 8. lerroa, 10. zkia
- 321. zkia, 8. lerroa, 11. zkia
- 955. zkia, 16. lerroa, 4. zkia
- 1440. zkia, 16. lerroa, 18. zkia
- 911. zkia, 7. lerroa, 19. zkia

- 785. zkia, 11. lerroa, 2. zkia
- 282. zkia, 11. lerroa, 11. zkia
- 1005. zkia, 13. lerroa, 14. zkia
- 293. zkia, 13. lerroa, 18. zkia
- 998. zkia, 13. lerroa, 22. zkia

Ordur geroztik, Auzapezak kontzesio horien berriz hartzeko banakako ordenantzak hartu ditu, ehorzketa enpresari legez herriari itzuli zaizkion terrenoak libre uzteko, monumentu oro eta bestelako ehorzketa ekipamenduak husteko, balizko hilobien presentzia egiaztatzeko eta horien bolumena aztertzeko agindua eman zion. Informazio gisa, jakin gorpuzkinak herriko hezurtegitara lekualdatu direla.

Herriak berreskuratu dituen 10 terrenoetatik 9k hilobia badute. Orain, horien salmenta prezioa finkatu behar da honako irizpideen arabera: kontserbazio egoera, leku kopurua, hilerrian duten kokapena (alde historikoa) baita hilobi berrientzat erabili ohi diren prezioak, eta herriak egin behar lituzkeen lanak.

Berreskuratu diren terrenoek honako ekipamenduak dituzte: Herriak berreskuratu dituen 10 terrenoetatik 9 hilobia badute.

-8. lerroa 10. zenbakia = 4 lekuko hilobia
(hilobirik ez)

-11. lerroa 2. zkia = lur betea

-8. lerroa 11. zkia = 4 lekuko hilobia
-16. lerroa 4. zkia = 4 lekuko hilobia
16 lerroa 18. zkia = 6 lekuko hilobia
7. lerroa 19. zkia = 4 lekuko hilobia

11. lerroa 11. zkia = 10 lekuko hilobia
13. lerroa 14. zkia = 4 lekuko hilobia
13. lerroa 18. zkia = 4 lekuko hilobia
13. lerroa 22. zkia = 2 lekuko hilobia

Zerrenda horri 9. lerroko 14. zenbakiko hilobia gehitu behar zaio. Administrazio bidezko berreskuratzea orain dela zenbait urte egin zen, baina salmenta prezioa eguneratu behar dugu orduko monumentua kentzeko gaur egungo kostuak kontuan hartzeko. Jakin terreno horretan 5 lekuko hilobia dagoela.

IKUSIRIK, aipatu hilobiak egoera onean daudela, 2 eta 10 hilkutxa artean har dezaketela, herriko hilerriaren alde historikoan daudela, herriak egin beharko lituzkeen lanen kostua eta ehorzketa enpresek hilobi berrien prezioa aplikatu dezaketela, herrira itzuli diren hilobien prezioak honela finkatzea proposatu du:

-8. lerroa 10. zenbakia = 4 lekuko hilobia	2 250 €
-8. lerroa 11. zkia = 4 lekuko hilobia	2 250 €
-16. lerroa 4. zkia = 4 lekuko hilobia	2 250 €
16 lerroa 18. zkia = 6 lekuko hilobia	3 100 €
7. lerroa 19. zkia = 4 lekuko hilobia	2 250 €
9. lerroa 14. zkia = 5 lekuko hilobia	2 750 €
-11. lerroa 2. zkia = lur betea (hilobirik ez)	
11. lerroa 11. zkia = 10 lekuko hilobia	5 000 €
13. lerroa 14. zkia = 4 lekuko hilobia	2 250 €
13. lerroa 18. zkia = 4 lekuko hilobia	2 250 €
13. lerroa 22. zkia = 2 lekuko hilobia	1 350 €

Azalpenak entzun eta eztabaidaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

HONELA FINKATU DITU

gainean aurkeztu bezala, herriari itzuli zaizkion hilobien salmenta prezioak

ONARTU DU libre gelditu diren terrenoak 30 urteko kontzesio berrientzako ezarriko direla.

BAIMENA EMAN DIO

Auzapezari ekintza horren burutzeko behar diren izapide ororen egiteko eta txosten horri datxikon dokumentu oro izenpetzeko.

004 – Tokiko zergak: tasen finkatzea.

ERABAKIA

Aizpuru andereak, finantzetarako auzapezordea, Herri Biltzarrari proposatu dio lur funts eraikien zergaren (FEZ/TFB), lur funts eraiki gabeen zergaren (FEGZ/TFNB) eta bigarren etxebizitzaren gaineko bizitegi zergaren tasak onartzea.

Oroitarazi du 2024an honako tasak zeudela indarrean:

- Lur funts eraikien gaineko zerga (FEZ/TFB): %26,21
- Lur funts eraiki gabeen gaineko zerga (FEGZ/TFB): %27,40
- Bizitegi zerga (BZ/TH): %12,59

Familien gain diren 3 zerga tasen bilakaera kalkulatzeko, aurreikusitako inflazio tasa kontuan hartzen da, hots %2,00.

Horiek horrela, eta hasierako aurrekontuan eman den fiskalitate sartzea kontuan izanik, Herri Biltzarrari proposatu zaio 2025eko tasa honela egokitzea:

- Lur funts eraikien gaineko zerga (FEZ/TFB): %26,73
- Lur funts eraiki gabeen gaineko zerga (FEGZ/TFB): %27,95
- Bizitegi zerga (BZ/TH): %12,84

IKUSIRIK, Frantziako zerga Kodeko 1639 A eta 1636 B sexies - 1636B decies artikulua;

IKUSIRIK, Lurralde Kolektibitateen Frantziako Kode Orokorreko L1612-2 artikulua;

Aizpuru anderearen azalpenak entzun eta deliberaturik, Herri Biltzarrak gehiengoz:

HONELA FINKATU DITU

2025eko zerga tasak:

- Lur funts eraikien gaineko zerga (FEZ/TFB):26,73 %
- Lur funts eraiki gabeen gaineko zerga (FEGZ/TFB):27,95 %
- Bizitegi zerga (BZ/TH):12,84 %

BAIMENA EMAN DIO

Auzapezari behar den agiri oro izenpetzeko.

Kontra bozkatu dutenak: Peio Etxeleku, Jean-François Lacosta, Argitxu Hiriart-Urrutry, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Alain Boscq, Xabier Heguy.

HITZ HARTZEAK:

Peio Etxeleku jaunak galdegin du berrestea aipatu diren oinarriak 2024koak direla eta ez direla administrazioak eman oinarri berriekin eguneratuak izan.

Auzapezak Etxeleku jaunari erantzun dio gaia finantza batzordean jadanik aipatua izan dela. Oinarri berriak bilkura hartako egun berean eskuratu ziren eta ondorioz dokumentuak ez dira eguneratu. Halere zehaztu du urtero kalkuluak aitzineko urteko oinarrietan egiten direla, metodoen iraunkortasun printzipioa segituz.

Peio Etxeleku jaunak azpimarratu du igurikatzen den etekina oinarrien bilakaerarena (oinarri efektua) eta tasen bilakaerarena (tasa efektua) baino handiagoa izanen dela.

Auzapeza ez da ados gorakadaren analisiarekin. Berretsi du zerga oinarrien bilakaera ez dela automatikoa aurten. Zerga datuen analisia egiterakoan zuhurtziaz jokatzeari eskatzen du, bereziki sektore publikoan. Izatez, aurten oinarri batzuk apaldu dira igotzeko orde.

Bizitegi zergari dagokionez, behin betiko oinarrietan beherakada bat agertzen da: 2024an 2 374 582 € eta 2025ean 2 055 000 €. Beherakadaren arrazoiak da zerga horren inguruan auzi handia genduela, bereziki oportunitate aukera batengatik batzuek beren bigarren etxebizitza lehen etxebizitza bezala deklaratu baitzuten.

Aldiz, funts eraikien gaineko zerga erreala emendatu dira, 9 723 053 €tik 9 869 000 €ra.

Finean, bildutako zergaren tarteak, aitzineko urteko oinarriekin kalkulatu dena ez da urteko behin betiko datuekin, 1 800 €koa besterik ez da. Horrek erakusten du aurkeztun den aurrekontuaren koherentzia eta zintzotasuna.

005 - Elkarteentzako diru-laguntzak.

ERABAKIA:

Aizpuru andereak, finantzarako auzapezordea, Herri Biltzarrari proposatu dio 2025ean elkarteei emango zaizkien diru-laguntzen zenbatekoak finkatzea.

Herri Biltzarrak, azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

ERABAKI DU 2025 urterako honako elkarteei diru-laguntzak ematea, 335 825 € zenbateko orokor batekin, honela banaturik:

Petanka lagunartea	470 €
Kanbo judo	2 150 €
Kanboarrak	6 200 €
Kanboko izarra	8 800 €
Mendiz mendi	530 €
Igeriketa kluba	710 €
Kanboko Errugbi taldea	8 800 €
Sukil'hand	4 200 €
Tenis kluba	1 980 €
AIEC	10 500 €
Arraga	1 320 €
Arraga Otxote	750 €
Batterie Fanfare KI (funtzionamendua)	570 €
Batterie Fanfare KI (ospakizunak)	820 €
Zinema	9 000 €
Behereko plazako besta komitea	6 200 €
Gaineko besta komitea	15 900 €
Emitza	560 €
Gau eskola	820 €
Kanboko harmonia	6 800 €
Jeikadi	2 600 €
Musikarentzat	250 €
Musikarentzat (ez ohiko laguntza)	250 €
Sukila + erraldaien festibala	540 €
Topatopia	780 €
UCAC - Merkataria eta ofizialeen Batasuna	3 500 €
ACCA	510 €
AHSM	500 €
PG CATM elkarte	550 €
Adiskidantza elkarte	1 220 €
bixkotxaren kofradia	1 650 €

Kanboko Gurutze Gorria	1 620 €
FNACA Kanbo	440 €
Suhiltzaile gazteak	520 €
Coopcinelle elkarteak (ikasgela berdeak)	1 500 €
Premiers pas elkarteak	750 €
Errobi ikastola	1 120 €
Eskola publikoetako guraso-elkarteak	1 900 €
Andere Maria eskolako guraso-elkarteak	900 €
Kanboko ikasleak	1 200 €
Euskaltzaindia	200 €
Alliance 64	195 €
Frantziako Elbarrituen elkarteak	270 €
CIDFF – Departamenduko Genero Berdintasuna (AEFH 64)	375 €
Essor Basque	3 500 €
Euskal Haziak	185 €
Eusko Ikaskuntza	100 €
Familles rurales	430 €
Ravel festibala	2 100 €
Gauargi	500 €
Gure Irratia - Entzun Ikus	540 €
Hemen Elkarkea	110 €
Ikas bi	140 €
Intregazio Batzordea	560 €
Ose – Urt Velo 64 (Handival)	300 €
Restos du cœur	650 €
Sokorri Katolikoa	500 €
VMEH (Ospitaleetako Eriei Bisitak egiten dituen elkarteak)	50 €
Turismo Bulegoa	220 000 €
OROTARA	340 085 €

Bozkatu diren zenbatekoek bat egiten dute aurrekontu baimenekin.

HITZ HARTZEAK:

Eliane Aizpuru andereak azaldu du iazko diru-laguntzei %2ko batezbesteko emendatze bat aplikatu zaiela, salbu iazko zenbateko bera atxikitzea eskatu duten elkarateentzat.

Auzapezak oroitarazi du, ohikoa denez, zerga-tasen emendatzea eta diru-laguntzena 2025eko %2ko inflazio aurreikusien arabera dela.

Zehaztu du diru-laguntzen onuradunak iazko ber-berak direla. Azkenik azpimarratu du, beste herri batzuetan ez bezala, diru-laguntzak apaldu ez baina lehengo hein berean atxiki direla eta gainera %2 emendatu direla.

Eliane Aizpuru andereak zehaztu du diru-laguntza txosten batzuk oraindik ez direla osatuak. Bozka arrats honetan egingen da, baina elkarteek eskas dituzten agiriak aurkeztu beharko dituzte. Abisatu ditu diru-laguntzak berantean ematen badirela txostena osatu gabea zelako izan daitekeela.

Philippe Bacardatz jaunak galdetu du zergatik errugbi taldearen diru-laguntza murriztu den.

Eliane Aizpuru andereak azaldu du errugbi taldearen diru-laguntza murriztu dela futbol taldeari ematen zaionarekin oreka baten atzemateko.

Auzapezak aitortu du diru-laguntzen esleipenerako meritu irizpideak kontuan hartzearen aldekoa dela, baina oso zaila dela hori praktikan ezartzea. Ondorioz, honako agintaldiarentzat orain arteko irizpideak mantenduko dira.

006 - GEUZarentzako diru-laguntzak.

ERABAKIA:

Aizpuru andereak, finantzetarako auzapezordea, oroitarazi du 2025eko martxoaren 18ko gutun bidez, Kanboko GEUZak 2025 urterako 169 200 €ko diru-laguntza eskatu diola herriari.

Eztabaidatu eta gero, Herri Biltzarrak, aho batez honakoa erabaki du:

ERABAKI DU: 2025 urterako Kanboko GEUZari 169 200 €ko diru-laguntza bat ematea.

007 - Eskolen kutxarentzako diru-laguntza.

ERABAKIA:

Aizpuru andereak, finantzetarako auzapezordea, oroitarazi du Eskolen Kutxako Batzordea 2025eko martxoaren 31an bildu dela 2025eko hasierako aurrekontuari buruzko iritzia emateko.

Eskola publikoetako kopuruak kontuan izanik, 5 308 €ko behar bat kalkulatu da, Herriak honela banatuko duena:

- 3 510 € lehen mailarentzat;
- 1 798 € ama eskolarentzat

Eztabaidatu eta gero, Herri Biltzarrak, aho batez:

ERABAKI DU: 2025 urterako Eskolen Kutxari 5 308 €ko diru-laguntza ematea, bi eskola publikoen artean honela banaturik

- 3 510 € lehen mailarentzat;
- 1 798 € ama-eskolarentzat.
-

008 - Hautetsien ordainsarien urteko egoera-laburpena.

ERABAKIA:

Aizpuru andereak, finantzetarako auzapezordea, oroitarazi du urtero aurkeztu behar dela Herri Biltzarreko hautetsiek eskuratu dituzten orotariko ordain sariak, euro gordinetan, izan herri biltzarrean bertan, sindikatu misto, ekonomia mistoko sozietate, tokiko sozietate publiko nola sozietate horietako baten filialetan dituzten mandatuengatik (Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2123-24-1-1 artikulua).

Elementu horiek hautetsiei helarazi zitzaizkien aurrekontua aztertu aitzin.

Ondorioz, Herri Biltzarrari proposatu dio informazio horiek ukan izana aitortzea.

IKUSIRIK, Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorra eta bereziki L 2123-24-1-1 artikulua;

IKUSIRIK, hautetsien ordain sariak finkatzen dituen 11-06-2020-005 erabakia,

Aizpuru anderearen aurkezpena entzunik eta erantsirik den dokumentuaren berri ukanik, Herri Biltzarrak aho batez:

AITORTZEN DU 2024 urterako udal funtzioen betetzeagatik eskuratu diren ordain sarien urteko bilduma aurkeztu zaiola.

HITZ HARTZEAK:

Auzapezak oroitarazi du eskuratu diren ordain sarietan ez dela aldaketak izan. Zehaztu du ordainsariak baimendutako zenbateko gorena baino apalagoak direla.

009 - Finantzak: kredituak atal batetik bestera pasatzea M57an.

ERABAKIA:

Aizpuru andereak, finantza gaietarako auzapezordea, honakoa aurkeztu du:

29-09-2021-066 erabakiarekin Herri Biltzarrak M57 kontularitza araudi berria 2022ko urtarrilaren 1etik erabiltzea onartu zuen

M57 instrukzioak malgutasun handiagoa eskaintzen du, ezen Herri Biltzarrak Auzapezari baimena eman baitiezaioke atal bateko kredituak beste batera pasatzeko, langile kredituak izan ezik, betiere atal bakoitzeko gastu errealeen %7,5eko muga batean (Frantziako LKKOko L.5217-10-6 artikulua).

Hala gertatzen bada, Auzapezak Herri Biltzarrari jakinaraziko dio erabakiaren ondorengo biltzar saioan.

Aizpuru anderearen azalpenak entzun eta eztabaidaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari 2025eko kontu ekitaldirako, M57a indarrean sartu denetik, atalez ataleko kreditu mugimenduak egiteko, langile gastuetako kredituak izan ezik (012), betiere atal bakoitzeko gastu errealeen %7,5eko muga batean.

010 - Aurrekontu nagusia: 2024ko emaitzaren esleipena.

ERABAKIA:

Herri biltzarrak 2024ko honako emaitzen berri hartu du:

	Funtzionamendua	Inbertsioak
Sartzeak	7 610 549,22 €	3 037 464,42 €
Gastuak	7 212 357,48 €	2 553 327,43 €
<i>Ekitaldiaren emaitza</i>	<i>398 191,74 €</i>	<i>484 136,99 €</i>
Aurreko emaitzaren berriz hartzea	717 528,77 €	240 698,11 €
2024/12/31ko azken emaitza metatua	1 115 720,51 €	724 835,10 €

2024ko kontu ekitaldiaren emaitza 1 115 720,51 €z positiboa da funtzionamendu atalean, eta 724 835,10 €z positiboa inbertsio atalean.

Aizpuru andereak, finantza gaietarako auzapezordea, honakoa proposatu du:

- 2024/12/31ean metatutako emaitza, funtzionamenduan 1 115 720,51 €z positiboa da, 745 720,51 €ko funtzionamendu sartzeekein 002 kapituluan eta 370 000 €ko inbertsio sartzeekein 1068 artikuluan.
- 2024/12/31ean metatutako emaitza, inbertsioetan 724 835,10 €z positiboa da, inbertsioa sarteetan 001 kapituluan.

Aizpuru anderearen azalpenak entzun eta eztabaidaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

ONARTU DU - 2024ko aurrekontu nagusiko funtzionamendu ataleko emaitza positiboa, hots 1 115 720,51 € funtzionamendu sarteetara honela esleitzea: 745 720,51€ funtzionamendura 002 atalera, eta 370,000 € inbertsioetako 1068 artikulura.

ONARTU DU - 2024ko aurrekontu nagusiko inbertsio ataleko emaitza positiboa, hots 724 835,10 € inbertsio sarteetara esleitzea (001).

HITZ HARTZEAK:

Auzapezak azpimarratu du Administrazio-Kontua hasierako aurrekontua baino lehen bozkatuz esleitzekoak diren zenbatekoak zehazki ezagutzen direla, bereziki inbertsio ataleko autofinantzazioa elikatzeko.

011 - Hilobi eta kolunbarioen aurrekontu erantsia: 2024ko emaitzaren esleipena.

ERABAKIA:

Herri biltzarrak 2024ko honako emaitzen berri hartu du:

	Funtzionamendua
Sartzeak	4 699,25 €
Gastuak	19 273,75 €
<i>Ekitaldiaren emaitza</i>	<i>- 14 574,50 €</i>
Aurreko emaitzaren berriz hartzea	33 434,79 €
2024/12/31ko azken emaitza metatua	18 860,29 €

2024ko kontu ekitaldiaren emaitza 18 860,29 €z positiboa da funtzionamendu atalean.

Aizpuru andereak, finantzetarako auzapezordea, proposatu du 2024ko hilobi eta kolunbarioen aurrekontu erantsiko 18 860,29€ko emaitza positiboa 2025eko hasierako aurrekontuko funtzionamendu sartzetara pasatzea.

Aizpuru anderearen azalpenak entzun eta eztabaidaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

ONARTU DU 2024ko hilobi eta kolunbarioen aurrekontu erantsiko 18 860,29€ko emaitza positiboa 2025eko hasierako aurrekontuko funtzionamendu sartzetara pasatzea.

012 - Aurrekontu nagusia: 2025eko hasierako aurrekontuaren bozkatzea.

ERABAKIA:

IKUSIRIK, Lurralde Kolektibitateen Frantziako Kode Orokorra

IKUSIRIK, 29-09-2021-066 erabakia, non Herri Biltzarrak M57 kontularitza araudi berria 2022ko urtarrilaren 1etik erabiltzea onartu baitu,

IKUSIRIK, 20250320-008 erabakia, 2025 aurrekontuaren norabideen txostena aurkeztu eta haren inguruko eztabaida izan dela aitortzen duena,

IKUSIRIK, 2025eko martxoaren 26ko finantza batzordearen iritzia,

Kontuan izanik, 2025eko hasierako aurrekontuaren aurkezpen txostena,

Kontuan izanik ondotik egiten den aurkezpen sintetikoa, 2025 hasierako aurrekontua atalez atal orekatua dela:

	Gastuak	Sartzeak
Funtzionamendu atala	8 163 383,00 €	8 163 383,00 €
Inbertsio atala	6 152 506,72 €	6 152 506,72 €
Orotara	14 315 889,72 €	14 315 889,72 €

Ondorioz, Herri Biltzarrari proposatu dio gai honi buruzko erabakia hartzea.

Eztabaidatu eta deliberaturik, Herri Biltzarrak gehiengoz:

ONETSI DU, aurrekontu nagusiko 2025eko hasierako aurrekontua.

Kontra bozkatu dutenak: Peio Etxeleku, Jean-François Lacosta, Argitxu Hiriart-Urrutry, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Alain Boscq, Xabier Heguy.

Eliane Aizpuru andereak azaldu du aurrekontua 14 315 889,72 €tan orekatzen dela, funtzionamenduan 8 163 383 € eta inbertsioetan 6 152 506,72 €rekin.

Aizpuru andereak funtzionamendu ataleko sartzeak aurkeztu ditu: 8 163 383 € eta horietarik 8 041 383 € sartze errealak izanik (horietatik 745 720,51 € funtzionamenduko etekinetik pasatuak) eta honela banaturik:

- 002 - Funtzionamenduko emaitzaren berriz hartzea	745 720,51 €
- 013 - kargen lausotzeak.....	26 200,00 €
- 70 - zerbitzuen sartzeak.....	1 043 500,00 €
- 73 – zergak	4 559 040,00 €
- 74 - Zuzkidurak, dirulaguntzak eta parte hartzeak	1 342 650,00 €
- 75 - Kudeaketa arrunteko beste sartzeak	299 272,49 €
- 76 – Finantza etekinak	25 000,00 €

042n, 122 000,00 €ko sailen arteko ordena eragiketak (84 000 € herriak zuzenean eginiko lanak, 38 000 € dirulaguntzen amortizazioa)

Funtzionamendu sartzeen eta hauen bilakaeraren estimazioari esker, 2025eko aurrekontuen orekatzeko jokagaiak hauteman ditzakegu.

2025erako, zerga zuzenetatik eskuratu sarrerak honela aurreikusten dira, lehenago boskatu tasaren arabera.

Beste tasak kontuz-kontu baloratuko dira, 2023-2024ko gauzatzeen arabera. Hori da, hain zuzen, 73141 eta 7318 ateko (eletrizitate, leku-eskubide, egonaldi-zerga, aparkaleku eta autokarabana) kontuen kasua.

Higiezinaren salmenta-zergaren aurreikuspen aurrekontua 2024ko Finantza Kontua baino apalagoa izanen da.

74. atalari dagokionez, 2024ko proposamen antzekoa egiten dugu, baina 2024rekin alderatuz berezitasun eta apaltze batzuekin. (ARS – 25 000 € 7418 kontuan; AG2R – 27 000 € 747888 kontuan).

Funtzionamenduko beste sarrerak zerbitzu jardueratik (1 043 000 €) eta alokairuetatik (299 000 €) datoz, aitzineko urteetako gauzapenetan oinarriturik.

Honakoak dira 2024ko aurreikuspen aurrekontuarekiko alde nagusienak:

- Zerbitzuen sartzeak (- 28 000 €).
- Kultur izaerako zerbitzuen zerga bereziak (-12 000 €): Arnagako lanetan aurreikuspena apaldu dira (saltokia - 3 000 €)
- Hilerrietako kontzesioak (- 6 000 €)
- Bestelako etekinak (9 000 €)
- Alokairuak (+ 12 000 €)
- Kudeaketa arrunteko beste sartzeak eta ez ohiko etekinak (-15 000 €) segurantzaz itzulerentzat eta (- 8 000 €) ehorzketa gastuentzat.

Aizpuru andereak funtzionamendu ataleko 8 163 383,00 €ko gastuak aurkeztu ditu, 7 658 383,00 €ko gastu errealak honela banaturik:

- 011 - karga orokorrak.....	2 422 800,00 €
- 012 - Langileria kargak eta antzekoak.....	3 717 000,00 €

- 014 - etekinen lausotzeak.....	108 000,00 €
- 023 - inbertsio atalerako transferentzia	366 000,00 €
- 65 - Kudeaketa arrunteko beste kargak.....	898 083,00 €
- 66 - finantza kargak.....	120 000,00 €
- 67 - ez ohiko kargak.....	26 500,00 €

042n, 505 000 €ko sailen arteko ordena eragiketak

Funtzionamenduko gastu errealak 2024ko Finantza Kontuko eta datu historikoko datuetan oinarrituz baloratu dira.

Zenbait doikuntza behera: administrazioarako hornikuntzak (- 7 500 €); katalogoak eta inprimakiak (- 30 000 €); 6228 orotariko kontukoak (- 5 000 €); kanpoko beste zerbitzuak (- 5 000 €).

Zenbait gauza gorako joeran aurreikusten dira:

- Karga orokorretan: 011 atala (garbi + 81 224 €); elektrizitatea (+ 10 000 €); bestelako hornikuntzak (+ 7 000 €); zerbitzu kontratuak (+ 10 000 €); alokatzeak (+ 10 000 €); hornikuntzak eta mantenua (+ 18 000 €); ikerketa lanak (+ 35 000 €); bestelako gastuak (+ 13 000 €) zergak (+ 12 000 €) inflazioaren eragina.
- Langileria gastuetan honako arrazoiengatik:
 - ✓ IFAC bariazioak (AGAZ) 2024an: 298 00 € (+%4), 2025eko aurreikuspena 330 000 € (+%11)
 - ✓ Langileria: bilakaera klasikoak (Zahartze eta Teknikotasun Lerratzek), gizarte kotizazioen bilakaera, arauzko bilakaerak, RIFSEEP eta abr) eta langileria mugimenduak, (2025 urte osoko kontratatze eta 2024ko postu uzteak, 2025ean eragina duten kontratatzeak)
- Kudeaketa arrunteko beste gastuetan, diru-laguntzak eta berezitasunak (+ 21 000 €); herriko forfaiak (+ 11 000 €); GEUZ (+ 7 000 €); diru-laguntzak (+ 4 000 €).

SRU diru-hartzea 108 000 €an aurreikusten da.

Aizpuru andereak inbertsio ataleko gastuak aurkeztu ditu 6 152 506,72 €an orekaturik, 6 020 506,72 €ko inbertsio gastu errealekin, honela banaturik:

- 16 – zorren itzultzea.....	545 000,00 €
- 20 - ibilgetu gorputzgabeak	30 000,00 €
- 13 - Inbertsiorako dirulaguntzak	283 774,82 €
- 21 - ibilgetu gorputzdunak.....	711 666,34 €
- 23 - bidean diren ibilgetuak.....	4 204 423,30 €
- 27 – beste finantza ibilgetuak	245 642,26 €

040an, 122 000 €ko ordena eragiketak eta 041ean, 10 000 €ko ondare eragiketak (hots 132 000 €).

Aizpuru andereak inbertsio ataleko sartzek aurkeztu ditu 6 152 506,72 €an orekaturik eta 5 637 506,72 €ko sartzek errealekin, honela banaturik:

- 001 - Inbertsioen egikaritze saldoaren gibelatzea.....	724 835,10 €
- 021 - funtzionamendu ataletiko transferentzia	366 000,00 €
- 10 - Zuzkidurak, Orotariko Funtzak, Erreserbak	1 127 279,56 €
- 13 - Inbertsiorako diru-laguntzak.....	896 836,50 €
- 16 – Maileguak eta antzeko zorrak.....	2 470 000,00 €
- 27 – itzultzekoak diren aurrerakinak.....	52 555,56 €

040an, atalen arteko 505 000€ko ordena eragiketak eta 041ean 10 000 €ko ondare eragiketak (hots 515 000€)

2025 urteko inbertsio programa 5 475 506,72 €koa da, (3 712 709,88 € PB/OK; 1 692 325,96 € PB/OKz kanpo eta 70 470,88 € aitzineko urtean gauzatu ez direnak).

HITZ HARTZEAK:

Peio Etxeleku jaunak galdetu du zenbatekoa den funtzionamendu gastuen bilakaera (inbertsio atalerako transferentziak gabe), Administrazio Kontuarekin alderatuz, kontu hori eskuragarri baita.

Aizpuru andereak erantzun dio AKrekiko funtzionamendu gastuak %8,59 emendatu direla iaz bozkatu zen aurrekontuarekin alderatuz (%4,32), eta aldiberean funtzionamendu sartze errealak %3 ttipitu direla.

Peio Etxeleku jaunak langileen postu uzteez galdetu du, besteak beste aurreikusten direnak, eta horien ez ordezteko menturaz. Halaber azpimarratu du sartzeen eta gastuen arteko tartea ttipitu dela eta horrek lehen indargune bat segurtasun lastaira ahultzen duela.

Eliane Aizpuru andereak zehaztu du, langileriari dagokionez, aldaketa nagusiak karga sozialetan eman direla, bereziki CNRACL delakoaren %3ko emendatze bat, hots 42 000 €ko gastu bat, finantza batzordean jadanik azaldu zuen bezala.

Peio Etxeleku jaunak insistitu du jakiteko 2025ean lanpostu uzteak (erretreta edo beste) izanen diren eta ordeztuko ez direnak zeren horrek funtzionamendu gastuen emendatze muga dezakeelako.

Eliane Aizpuru andereak aitortu du zenbait postu ez ordeztea posible dela, sektore pribatuan egin ohi den bezala, baina uste du hori ez dela herriko etxe batentzako planteamendu egokia. Zehaztu du lanpostuak banan-banan aztertzen direla, lanbideen bilakaera kontuan hartuz. Gaur egun arte egin diren ordezpenei (bereziki postu teknikoetan) ez dute, zorionez, eztabaidarik eragin.

Peio Etxeleku jaunak aipatu du badirela funtzionamendu gastuak murrizteko beste palanka batzuk.

Auzapezak oroitarazi du herriko etxeak iaz organigrama bat osatu zuela langileria-beharren identifikatzeko. Horiek horrela, ez du aurreikusten langilerian murrizketarik egitea, baina kontrara, jadanik egin diren kontratatzeak ikusirik, oraindik lanpostu bat gelditzen da betetzeko bideen zerbitzuan.

Azpimarratu du kudeaketa-aurrezkia emendatu dela, 644 000 €tik 947 000 €ra bi kontu ekitaldiren artean eta horrek deszorpetze gaitasuna hobetu duela, 6,52 urtetik 5,16 urtera. Zehaztu du, bere ustez, finantzen analisia inbertsio proiektuen finantzatzeko gaitasunean zentratu behar dela, bereziki laguntza publikoak eskasten ari diren tentsio testuinguru batean (Frantziako estatuarne diru-laguntzak, DETR, Elkargoa, Departamendua).

Philippe Bacardatz jaunak inbertsio gastuetan agertu den elementu berri bati buruz galdetu du: bi padel zelairen sortzea. Proiektuaren izaerari eta kokapenari buruzko xehetasunak eskatu ditu.

Auzapezak erantzun dio padel zelaien egiteko eskaera aspaldikoa dela, tenis zelaien estaltzeko lanegin batera agertu zela. Kirol horrek duen arrakasta ikusirik proiektu bat sartzea erabaki du aurrekontuan. Zehaztu du gogeta bat abian dela kokapenari eta kudeaketa-moduari buruz.

Philippe Bacardatz jaunak galdetu du ea ba ote den proiekturik Duhalde plazako garaje erosteko.

Auzapezak azaldu du Duhalde plazako garajea lehentasunez eskuratzea herri erdigunearen berrantolatzeko proiektu orokorrago batean kokatzen dela. Berrantolaketa hori Txikito karrika inguruan eta Herriko Etxearen aitzinean aurreikusten da. Horren helburua da, jabeekin adosturik, saltokien irudia eta funtzionaltasuna hobetzea.

Nathalie Aïçaguerre andereak Makeako bidean den suteetarako ur-poltsaren egoerari buruzko argibideak eskatu ditu, uste baitu egoera txarrean dela duela jadanik zenbait urte. Galdetu du ea ur-biltegi horrek funtzionala izaten segitzen duen ala ordeztua izan denetz.

Zerbitzu Teknikoetako Zuzendariak adierazi du Makeako bideko suteetarako ur-poltsa ez dela gehiago erabilgarria zerren suhiltzaileentzako iturriak ezarri biatira eremu osoan. Ekipamendu berri horiek ezarri ahal izna dira uraren presioa hobetu denetik, gainaldeetan diren eremuetaraino ura igortzeko. Orain ur-poltsa soilik erabiltzen da euri-uren isurtzeko.

Philippe Bacardatz jaunak Albeniz biribilgunearen proiektuaz galdetu du. Aipatu du laster Deialdien Batzordea bilduko dela eta galdetu du lanak 2025ean hasiko diren, eta 430 000 €ko zenbatekoa ekintza osoarentzako denetz.

Zerbitzu Teknikoetako Zuzendariak baieztatu du Albeniz biribilgunearentzako Deialdien Batzordea heldu den astean bilduko dela. Lanak irail erditsutik goiti programatuak dira, hiru hilabete eta erdirako. Urte hondarrean bukatua izan beharko luke.

Nathalie Aïçaguerre andereak galdetu du Albeniz biribilguneko lanak Paskalekukoarenak baino lehen egingen diren.

Auzapezak zoritxarrez baieztatu du Paskalekuko biribilguneko lanak Albeniz biribilgunearen ondotik egingen direla.

Zerbitzu Teknikoetako Zuzendariak berri ontzat jotzen duenaren berri eman du: Albeniz biribilguneko proiektuan egitekoa den transformagailuarne lekualdatzea Enedizek bere gain hartuko du Auzapezaren eskuhartze baten onodtik. Transformagailua lekualdatzeko lanak biribilgunearenak baino lehen egingen dituzte.

Philippe Bacardatz jaunak begi onez ikusten du Enedizek transformagailuaren lanak bere gain hartzea eta azpimarratu du horrek segurtasuna hobetuko duela. Ohartu da Paskalekuko biribilgunea ez dela 2025eko aurrekontuan agertzen eta horrek erran nahi du lanak ez direla 2026 baino lehen abiatuko.

Eliane Aizpuru andereak azaldu du Paskalekuko proiektua behin eta berriz gibelatua izan dela bereziki lur-funtsen inguruan dagoen ziurgabetasunarengatik.

Auzapezak zehaztu du ez dela herriko etxea Paskalekuko lanak gibelatzen dituen, baizik eta finantzatzailea, Departamenduko Kontseilua. Gehitu du lur-funtsen eta sarbideen inguruko arazoak konponduak direla dagoeneko, baina finantzatzailea dela lanak gibelatzen dituen, nahiz eta Departamenduko Kontseiluak erraten duen proiektua bere aurrekontuan idatzia dela.

Jean-Paul Alaman jaunak galdetu du nolaz Departamenduko Kontseiluak Albeniz biribilgunea lehenago diruztatu duen, jakinez Paskalekukoa lehenago aukeztu zela.

Auzapezak azaldu du Albenizkoak finantza-muntaketa desberdina duela.

Zerbitzu Teknikoetako Zuzendariak azaldu du Albenizkoaren kasuan herria dela obra agintari eta bere gai hartzen dituela errepidear loturiko gastuak, diru-laguntza osagarririk gabe. Paskalekukoaren kasuan, ordea, Departamendua de obra agintari nagusia. Zehaztu du Paskalekukoari buruzko ikerketek segitzen dutela, koordinazio bilkura bat izanen de laster baina oraingoz ez duela informazio berririk.

Philippe Bacardatz jaunak zalantzak adierazi ditu bizikleten presentzia adierazteko lurrian egi diren marken eraginkortasunari buruz, eta bere ustez ez dute segurtasuna nabarmen hobetzen. 2025ean bizikleta planarentzako 62 000 €ei dagokienez, galdetu du ea seinal mota bera egiteko baliatuko denetz ala antolamendu seguruagoentzat.

Vincent Goytino jaunak azaldu du 2025eko bizikleta planaren 62 000 €ak jadanik hasiak diren antolamenduen segitzeko baliatuko direla. Lurreko markez gain, zirkulazio argietako bizikletentzako eremua bizikleten abiatzea segurtatzeko. Antolamendu horiekin batera komunikazio lan bat egingen da, auto gidariek txirrindulariak errespetatu ditzaten eta txirrindulariek berentzako bideak behar bezala erabil ditzaten. Helburua elkarbizitza hobetzea da eta bizikleta gehiago erabiltzea.

Philippe Bacardatz jaunak, bizikletaz erregulariki ibiltzen dena, zalantzak ditu txirrindularien segurtasuna hobetzeko ezarri den seinaletikari buruz. Ongi deritza biztanleria informatzeari, baina uste du horrek segurtasunean duen eragina mugatua dela.

Vincent Goytino jaunak erantzun dio seinaletikaren xedea dela errepidean txirrindulariek badutela beren lekua. Nahiz eta auto gidari batzuek ez dituzten bizikletak jasaten ahal, seinaletika horri esker bizikleten lekua eta legitimitatea berresten da eta auto gidariei oroitarazten die bizikletak errespetatu behar dituztela.

Xavier Heguy jaunak xehetasunak galdetu ditu hiriko panel eta altzarientzako 170 000 €ko aurrekontu lerroari buruz. Ekipamenduen izaera zehatzaz galdetu du.

Zerbitzu Teknikoetako Zuzendariak zehaztu du 170 000 €ak nagusiki karriken izen plakak erosteko direla, eta horretarako deialdi bat prestatzen ari direla.

Nathalie Aïçaguerre andereak honako galdera egin du: "beraz, oraindik ez dira eskatuak izan?"

Zerbitzu Teknikoetako Zuzendariak zehaztu du zenbatekoa ikusita, deialdi bat egitea behartuak direla. Deialdia prestatzen ari dira.

Nathalie Aïçaguerre andereak gehitu du aitzineko Herri Biltzar batean galdera egin zuela eta Zerbitzu Teknikoetako Zuzendariak erantzun ziola eskaera bi edo hiru hilabete lehenago eginga izan zela.

Eliane Aizpuru andereak zehaztu du uztaileko eginga izanen dela.

Philippe Bacardatz jaunak ohartarazten du Delbarre auzoko lanen bukatzeko lerrorik ez dagoela aurrekontuan, eta galdetu du ea gastu hori errepideen lerroan sartua ote den.

Jean-Noël Magis jaunak baieztatu du Delbarre auzoko lanen bukatzeko zenbatekoak bideen aurrekontuan sartuak direla. Lan horien bigarren urrats bat aurreikusten dute.

Philippe Bacardatz jaunak 2024ean aldatu beharrekoa zen Herriko Etxeko galdararen aldatzea zertan den. Ohartarazi du galdara osoaren ordeztu (ur beroa eta berogailua) urberogailu bat baizik ez dela aurreikusia, eta galdetu du ea proiektua aldatu den ala gibelatu.

Eliane Aizpuru andereak zehaztu du Herriko Etxeko galdara 2024an aldatu zela. 30 200,69 € kostatu zuen, lehen taulako azken lerroan ikus daitekeen bezala.

Bozkaren ondotik, Auzapezak Eliane Aizpuru bihotzez eskertu du bere lan eta azalpen zehatzengatik, baita ZZN eta zerbitzuak beren engaiamendua eta disponibilitatearengatik kontularitza gaietan.

Auzapezak azpimarratu du aurreikusi diren inbertsioak, hala nola ezker-pareta, gazteriarentzako proiektuak, pilota, zelai sintetikoa eta petanka gunea, eta bestalde eskolako jolasgunearen berdetzea, eginen direla eta lehenatsunak direla. Azpimarratu du proiektu horiek urraspide ekologiko eta bertutetsua batean egiten direla.

013 - 2025eko Programa Baimenak eta Ordainketa Kredituak (PB/OK - AP/CP).

ERABAKIA:

Aizpuru andereak, finantza gaietarako auzapez ordeza, honakoa aurkeztu du:

Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L2311-3 artikulua arabera, aurrekontu zuzkiduretako inbertsio gastutzat har daitezkeela Programa Baimenak eta Ordainketa Kredituak (PB/OK).

M57 kontularitza nomenklaturaren arabera, programa baimenen prozedurak (PB) onar daitezke inbertsio gastuentzat.

2022ko apirilaren 12ko erabakiz lau PB/OK sortu ziren, 2022ko abenduaren 21eko erabakiz horietako bi berrikusi ziren eta bi berri sortu.

2023ko apirilaren 14ko erabakiz lau PB/OK sortu ziren, 2023ko abenduaren 12ko erabakiz horietako hiru berrikusi ziren eta berri bat sortu.

2024ko apirilaren 15eko erabakiz lau PB/OK sortu ziren, 2024ko abenduaren 10eko erabakiz horietako bi berrikusi ziren eta bi berri sortu.

Ikusirik ekintzak nola aitzinatzen diren, beren heldutasuna eta batzuen zenbatekoak nola aldatu diren, Herri Biltzarrak zenbait baimen hetsi behar ditu, menturaz berri batzuk sortu, eta Programa Baimen zenbaiten Ordainketa Kredituen urte anitzeko programazioa edo zenbatekoak doitu, eranskinean agertzen denaren arabera.

Honako programa baimenak heste proposatzen da:

- 2022-002 San Laurendi elizan organo baten sortzea. Ekintza 450 080,70 €ko zenbatekoarekin bukatu da.
- 2024-012 Harmailen antolamendua Ekintza deusezten uzten dugu Departamenduko Kontseiluak deialdia bertan behera utzi eta gero.

Azalpenak entzunik, eztabaidaturik eta deliberaturik, Herri Biltzarrak boz gehiengoz

ONARTU DU

bi PB/OKren hestea eta 2022, 2023 eta 2024ean sortu ziren PB/OKren bilan erantsia hestea, horietako batzuk aldatuak izanik, eta 2025-2026ekitaldietako OKen banaketa berria onetsi du.

Kontra bozkatu dutenak: Peio Etxeleku, Jean-François Lacosta, Argitxu Hiriart-Urrutry, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Alain Boscq, Xabier Heguy.

HITZ HARTZEAK:

Philippe Bacardatz jaunak bere taldearen kontrako bozkaren arrazoitzat eman du bizikleta plana. Ez dute sinesten proposatu den seinaletik Kanbon txirrindularien segurtasuna hobetuko duenik, eta horregatik PB/OK guztien kontra bozkatuko dute, nahiz eta aurrekontua orokorki onetsi.

014 – Programa Baimenak eta aurreikusi ez diren gastuen esparruan Engaiatzeko baimenak.**ERABAKIA:**

Aizpuru andereak, finantza gaietarako auzapez ordea, honakoa aurkeztu du:

Printzipio orokorra:

Biltzar erabakitzaileak kreditu bat aurreikus dezake ustekabeko gastuei aurre egiteko, izan funtzionamendurako nola inbertsioetarako.

Prozedura horrekin, exekutiboari baimena ematen zaio, kontu ekitaldian, transferentziak egiteko ustekabeko gastuen ataletik (022 atala funtzionamenduan eta 020 inbertsioetan) beste atal batzuetara.

Onarpen modalitateak:

M14 nomenklaturan ustekabeko gastuetan kredituak ezartzea aurreikusten zuen, baina sail berean aurreikusi ziren gastuen %7,5eko mugan.

Herriak 2022ko urtarrilaren 1ean abiatu M57 nomenklaturak aukera ematen du Programa Baiemenetarako zuzkidurak onartzea (inbertsioetan) edo/eta Engaiamendu Baimenetarako zuzkidurak (funtzionamenduan) artikulurik eta ordainketa krediturik ez duten "ustekabeko gastu" izendaturiko ataletan (LKKOko L.5217-12-3 artikulua).

Atalasea:

PB eta EB horien zenbatekoa sail bakoitzeko gastu errealean %2ra mugatua da (egiteke gelditzen direnak ez dira kalkulan sartzen).

Erabilpena:

Ezusteko bat gertatzen bada, biltzar erabakitzaileak PB edo EB zenbateko bat transferitu dezake 20. ataleko "ezusteko gastuak (PB baten kasuan) edo 22. ataleko "ezusteko gastuak" (EB baten kasuan) zuzkiduratik gastua eginen duen atalera. Xede-atala jadanik PB edo EB zuzkidurak dituen atala izan daiteke, edo inbertsio saileko "ekintza" gastu atal bat.

Exekutiboak PB edo EB baten zuzkiduratik ezusteko gastuentzat transferentzia bidez egin diru horniketak urte anitzeko atalasea goratzen du, zeina xede-atalean erregistratzen ahalko baita. Honela, kontularitzako atalase engaiamendua emendatua izanen da ezusteko gastua egin ahal izateko.

Beste:

Ezusteko gastuentzako kredituak hasieratik aurrekontuan idatziak ez diren urgentzia egoerako gastuak ordaintzeko, agintzeko edo likidatzeko aukera ematen diote exekutiboari eta honek ez du Herri Biltzarraren saiorik deitu beharrik transferentzia egiteko.

Baina, transferentzia erabakiak ezusteko gastu batean eragina duenez aurrekontuko erabaki bezala kontsideratzen da eta arauzko egintza baten izaera du.

Erabakia (edo ordenantza) frantses estatuko ordezkariari helarazi behar zaio.

Auzapezak nahitaez gastuaren berri eman beharko dio biltzar erabakitzaileari gastua egin eta ondoko saioan behar diren egiaztagiriak aurkeztuz.

Biltzar erabakitzaileak gastua berresteko gerora hartuko duen erabakia aurrekontuko erabaki aldatzailea da eta frantses estatuko ordezkariari helarazi behar zaio legezkotasun kontrolerako.

PB eta Eben iraungitzea:

Kontu-ekitaldian gastua ez bada egin, ordaindu ez den PB edo EB zuzkidurako zatia iraungitua izanen da eta halaberrez deuseztatua.

Aizpuru anderearen azalpenak entzunik eta deliberaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

ONARTU DU honakoak irekitzea:

- Urterako programa baimen (PB) bat 020 atalean, inbertsio saileko gastu errealean %2ko mugan (gauzatzeke gelditzen direnez aparte), hots 119 000,72 €ko zenbatekoa 119 000 €ra borobildua;
- Urterako engaiamendu baimen (EB) bat 022 atalean, funtzionamendu saileko gastu errealean %2ko mugan (gauzatzeke gelditzen direnez aparte), hots 153 167,66 €ko zenbatekoa 153 000 €ra borobildua.

015 – Hilobi eta kolunbarioen aurrekontu erantsia: 2025eko hasierako aurrekontuaren bozkatzea.

ERABAKIA:

IKUSIRIK, Lurralde Kolektibitateen Frantziako Kode Orokorra

IKUSIRIK, 29-09-2021-066 erabakia, non Herri Biltzarrak M57 kontularitza araudi berria 2022ko urtarrilaren 1etik erabiltzea onartu baitu,

IKUSIRIK, 20250320-008 erabakia, 2025 aurrekontuaren norabideen txostena aurkeztu eta haren inguruko eztabaida izan dela aitortzen duena,

IKUSIRIK, 2025eko martxoaren 26ko finantza batzordearen iritzia,

Kontuan izanik, 2025eko hilobi eta kolunbarioen aurrekontu ernatsiko aurkezpen txostena,

Kontuan izanik ondotik egiten den aurkezpen sintetikoa, funtzionamendu atal bakarra duen 2025eko hilobi eta kolunbarioen aurrekontu erantsia honela orekatzen da

	Gastuak	Sartzeak
Funtzionamendu atala	50 715,00 €	50 715,00 €

Ondorioz, Herri Biltzarrari proposatu dio gai honi buruzko erabakia hartzea.

Eztabaidatu eta gero, Herri Biltzarrak, aho batez honakoa erabaki du:

ONARTU DU 2025eko hilobi eta kolunbarioen aurrekontu erantsiaren 2025eko hasierako aurrekontua, funtzionamendu atal bakarra duena.

016 – Egonaldi zerga: 2025eko urtarilaren 1eko salneurriak.

ERABAKIA:

Irastorza jaunak, auzapezaordea, onakoa aurkeztu du:

Egonaldi-zerga 18 urtetik gorako lurraldeko bisitariek ordaindu behar dute, baldin eta gutxienez gau bat egiten badute aterpe profesional edo ez-profesional batean, autokarabanentzako gune batean eta abar. Zerga horren xedea lurraldearen erakargarritasuna hobetzea denez, turismoari begira harrera zerbitzuak, informazio zerbitzuak, sustapena, antolamendua eta ondarearen balioan ezartzea diruztatzen ditu.

Frantziako 2021erako 2020ko abenduaren 27ko 2021-1721 finantza legeak ebatzi zuen ondoko urteko urtarilaren 1ean indarrean izanen diren prezioak uztailaren 1a baino lehen onartu behar direla.

2023an, Frantziako egonaldi-zergaren atalaseak berrikusi zirenetik, Ipar Euskal Herrian zerga hori biltzen duten herriek (Angelu, Baiona, Biarritz, Bidarte, Hendaia) zergaren emendatzea erabaki zuten 2024ko urtarilaren 1erako. Kanbo herriak gauza bera egin du 2023ko apirilaren 14 erabakiz.

2025eko urtarilaren 1ean atalasean beste behin goratu ziren.

Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Kontseiluak egonaldi-zergaren gaineko %10eko departamendu zerga gehigarria ezarri zuen. 2018ko urtarilaren 1etik herriak du zerga hori biltzen eta Departamenduari isurtzen.

2022ko abenduare 30eko 2022-1726 legeko 76. artikulua %34ko eskualdeko zerga gehigarria ezarri zuen Frantzia Hego Mendebaldeko Proiektu Handia (GPSO) diruztatzeko. 2024ko urtarilaren 1etik herriak du zerga hori biltzen eta GPSO sozietateari isurtzen.

Ondorioz, egonaldi-zergaren prezioak berrikustea proposatzen du, turismo-gune sailkaturiko beste herrien batazbestekoaren heinera, 2026ko urtarilaren 1etik goiti pertsona eta gau bakoitzeko, arauzko kategoria guztientzat honi erantsia zaion taulan bezala.

Salbuespenak:

2015eko apirilaren 23ko erabakiz, eta Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L. 2333-31 artikulua araber, egonaldi-zergatik salbuetsiak izanen dira:

- Adin txikikoak,
- Herrian lan egiteko sasoiari kontratua dutenak,
- Larrialdi-egoitza edo behin-behineko berraterpetzea duten pertsonak,
- 300 €tik beherako hilabete sariko edo errentako lokala okupatzen duten pertsonak,

Aterpetzaileek egonaldi-zerga deklaratu eta ordaintzeko dituzten garaiak honakoak dira:

- Apirilaren 1etik 15era, lehen hiruhilean bildu zergarentzat,
- Uztailaren 1etik 15era, bigarren hiruhilean bildu zergarentzat,
- Urriaren 1etik 15era, hirugarren hiruhilean bildu zergarentzat,
- Urtarilaren 1etik 15era, laugarren hiruhilean bildu zergarentzat.

Irastorza jaunaren azalpen osagarriak entzunik eta deliberaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

ONARTU DU 2026ko urtarilaren 1etik goiti aplikagarriak izanen diren egonaldi-zergaren prezioak eta bilketa moduak, gaineko taulan ageri dirne bezala.

HITZ HARTZEAK:

Philippe Bacardatz jaunak autokarabana gunean autokarabana bakoitzean dagoen pertsona kopuruaren kudeaketari dagokionez, galdetu du pertsona kopuruaren deklarazioa nola egiten den, jakinez etxebizitzan kasuan zerga pertsona bakoitzeko eta gau bakoitzeko kalkulatzeko dela.

Didier Irastorza jaunak azaldu du oraingoz autokarabanen pertsona kopurua ibilgailuka egien dela, baina ideala litzateke pertsona bakoitzeko egitea, hotelean bezala. Arazo konplexua da, zeren bisitariak ez baitira beti fede onekoak pertsona kopurua deklaratzeko unean. Aterabideak aztertzen ari dira, besteak beste autokarabana bakoitzeko bi pertsona kontatzea, edo kontrolak egitea, baina zaila da halakorik egitea gastu gehigarriak sortu gabe.

– Bestelako gaiak:

Auzapezak adierazi du Nahi Dugun Herria taldeak galdera bat epez kanpo aurkeztu duela, baina halere gaia aipatu nahi duela informazio modura. Ursuya klinikari buruzko galdera da. Zehaztu nahi du Auzapezaren eskumena zein den egitura horren kasuan, Publikoari Irekiak diren Egitura guztientzat bezala. Auzapezaren eskumena soilik mugatzen da suteen kontrako segurtasun arauen betearaztera. Eskumen eta ardura hori prefekturarekin partekatzen du. Prefekturak berak erabaki dezake egitura bat hestea, baldintzek hala behartzen badute eta auzapezaren ekintza ezean.

Baina, pazienteen segurtasuna eta arten kalitatea Eskualdeko Osasun Agentziaren eskumenekoak dira, zeinak bere aldetik eta bakarrik erabaki baitezake egitura hestea.

Ursuya klinikari dagokionez, Kanboko Herirko Etxeak 2023ko irailaren 14tik segitzen du afera hori, segurtasun komisioan lehen aldikotz ezezko iritzia eman zuenetik. Suprefektura eta tokian bertan atolatu diren bilkuretan parte hartu du 2024ko ekainaren 18 arte, data hartan aurkeztu baitu klinikaren zuzendaritzak segurtasun arauetara egokitzeko gida-eskema. Prefekturak, suhiltzaileek eta Herirko Etxeak gida-eskema onetsi zuten 2024ko agorrilaren 27an.

Ordutik, herriak hilabeteroko bilkurak inposatu dizkio Urduy klinikako zuzendaritzari, eskema hartan zehaztutakoa betetzen ari zela bermatzeko. APAVE kontrol bulegoak hiruhilero txosten bat egin behar zuen lanen egokitasunaren berri emateko, eta INGECOBAT bulegoari zegokion egutegiaren errespetua zaintzea.

Gaur, apirilaren 9an, APAVE bulegoaren txostenak ez du hasierako berrogeita sei aginduei buruzko kontrako iritzirik eman.

Herriaren jarrera beti izan da eta da osasun jarduera hori mantentzea, hots 76 ohe eta 80 lan-postu, eta hesteko erabakia saihestea. Horretarako, herriaren eskumenen arabera iparrorratz bakarra izan da zuzendaritza azkarki akuilatzea gida-eskemaren epeak betetzera suteen kontrako neurriei zegokienez.

Ohartu behar dugu egitekoak bete dituela eta ondorioz suteen kontrako segurtasun neurriei dagokienez egoera konpondua dela. Menturaz eraberritua gerta daitekeen zuzendaritzak argudio berritzaile aurkez dieziokete EOari, nahiz eta ezin dugu asmatu agentziak zer nolako erabakia hartuko duen.

EOaren erabakiari dagokionez, Kanboko herriko etxeak deitoratzen du, Baionan martxoaren 31 suprefekturan egin den bilkuran adierazi zuen bezala, EOak bere aldetik bakarrik lan egin izana, lanen emaitzak kontuan hartu gabe eta bere erabakia hartzeko data gida-eskeman finkatu azken epearekin bateratu gabe, hots 2025eko agorrilaren 26a.

Lanak elkarrekin eginez erabaki argudiatua eta bateratua hartuko genuen jarduerak segitzen ahal zuen ala ez ebazteko.

Auzapezak proposatu du Ursuya klinikaren aldeko sostengu mozio bat bozkatzea, oraintxe azaldu dituen elementuak hartuz. Mozioaren testua irakurtzeari ekin dio:

Auzapezak ezadostasuna adierazi du prentsa ohar batean gauzak aurkeztu diren manierarekin, bereziki osasun egoera eta suteen kontrako segurtasuna parekatu izanarekin. Berresten du Suprefetari jadanik helarazi dizkiola bere oharrak, eta honako mozioarne bidez erabilia izan den lan metodoa gaitzesten du, nahiz eta ez duen gobernantzaren defendatzaile jarrera hartu nahi. Galderak erantzuteko prestutasuna adierazi du eta berretsi du hartutako jarrera urraspide arduratsu baten ondorioa dela.

Aiçaguerre andereak egoeraren aitzinean tristezia adierazi du. Desolagarria iruditzen zaio, bereziki zenbait pazienteek egituratik joaten ikustean. Esperantza gutxi ikusten du. EOari dagokionez, agentzia horren gainean presioa egitera deitzen du, egituraren heste ez dadin baldintza txarretan egin, Beaulieu gertatu zen bezala, non mediku-txostenak denen begi bistara egon baitziren. Berretsi du hestea gauzatuko denean gutxieneko errespetua eta zurruntasuna beharko direla.

Auzapezak oroitarazi du Herriko Etxeak ez duela eskumenik EOaren erabakietan eragiteko klinikaren kudeaketari dagokionez. Halere, azpimarratu du, martxoaren 31an erran zuen bezala, egitura horren hesteak Beaulieu hetsi zeneko arazo berak eragin ditzakeela, besteak beste 200 oheen desagertzea edo moldatzea, horietako batzuk deuseztatu direlarik.

Zehaztu du bilkura hartan pazienteen bikokapena aipatu zuela. Nahiz eta aldeko erantzuna ukan, zalantzak baditu. Bestalde, egoera orokorraz eta krisitik ateratzeko kudeaketaz ez du inolako erantzunik ukan.

Zuzendariak aipatu duen menturazko salmenta bati buruzko dudak ditu, zeren jarduteko baimenik gabe ez baita deus saltzeko. Ez da saltoki arrunta, baizik eta EOaren baimena behar duen jarduera bat.

Deitoratzen du arazoa ez baita lehenago landu, EOarekin lankidetzan eta enpleguak mantentzeko egiazko borondate batekin. Gaurko egoera antizipazio eskasaren ondorioa dela irizten du. Gai teknikoak aipatzen ari da, baina pertsonen gaineko eragina da larriena, bereziki aitzinatasun luzea duten langileentzat. Haienezako lekuz aldatzeak suposatzen duen trauma aipatu du, eta Kanbo osasun hiriarentzako galera.

Etxeleku jaunak bat egiten du mozioarekin, eta eskertzen du eman dituen zehaztasunengatik, bereziki gaurko gobernantzari sostengu ematearen nterpretazioa, zeren hura baita egoeraren erantzule, zati batean. Zenbait agente abisatu dituela adierazi du, eta oheak Ipar Euskal Herrian egoten direno lasaiturik agertu dira. Halere, Kanboren ikuspegitik, jardueraren lekuz aldatzea ez da onargarria. Azpimarratu du egitura horren atxikitze beharra, osasun eta ekonomia ikuspegitik, eta haren iraunkortasuna bermatzeko aterabideak atzeman beharra.

Auzapezak berretsi du, nahiz eta egoera konplexua izan, bere ardurakoa dela enpleguak eta totkiko jarduera hori mantentzea.

ERABAKIA:

Kanboko Herri Biltzarrak, 2025eko apirilaren 9an osoko bilkuran bildurik,

Kontuan izanik Ursuya klinikak herriaren lurraldean eta departamendu mailan osasun eskaintzarentzako duen garrantzia,

Oroitarazirik auzapezak publikoari irekiak diren Egituren suteen kontrako segurtasunean duen eskumena, prefekturako zerbitzuekin eta suhiltzaileekin koordinaturik,

Azpimarraturik, 2023ko irailaren 14ean segurtasun komisioak iritzi ezkorra eman zuenetik herriak egituraren segipen eta kontrol bilkuretan parte hartu duela arauzko betebeharrak errespetatuak izan zitezen,

Ohartarazirik segurtasunerako gida-eskemak prefekturaren eta suhiltzaileen oniritzia ukan duela eta Azuapezak 2024ko agorrilaren 27ko ordenantza bidez ere gida-eskema onetsi zuela, eta elkarrekin hilabeteroko segipen bat ezarri dutela APAVE bulegoarekin zeinak lanen egokitasuna egiaztatu behar baitzuen,

Ohartarazirik, bulego horrek gaur eginiko txosten batean ez duela iritzi ezkorrik ematen hastapenean agindu ziren 46 neurriei buruz,

Zehazturik halere 46 betebeharrak horiek suhiltzaileek soilik onetsiko dituztela heldu de segurtasun komisioaren ondotik,

Adierazirik, osasun aldetik, pazienteen eta langileen segurtasunaren balorazio Eskualdeko Osasun Agentziaren (EOA) eskumen soila dela,

Deitoraturik, egituraren gaurko gobernantzaren ekimen eta prestutasun eza sistematikoa zela,

Deitoraturik, Eskualdeko Osasun Agentziak (EOA) bere kabuz eta isolaturik erabaki duela klinikaren osasun baimenak ez eraberritzea, bere erabakiaren data 2025eko agorrilaren 26koarekin bateratu gabe, non gida-eskemaren aginduak bukatuak izan behar baitziren,

Kanboko Herri Biltzarrak EOArekin erabakia etetea eskatzen du eta ahalaz gobernantza berri batekin Ursuya klinikaren jardura mantentzea, bere 76 oheekin eta 80 lan-postuekin, egitura horren jardura gelditzeak izan lezakeen gizarte eta osasun eragina kontuan hartuz,

Eztabaidatu eta gero, Herri Biltzarrak, aho batez honakoa erabaki du:

ONARTU DU Ursuya klinikaren sostenguzko mozioa hau.

Aiçaguerre andereak aterabideari buruzko zalantzak adierazi ditu, igurikaturik ongi aterako dela, baina onarturik ez duela itxaropen handirik.

Azuapezak adostasuna adierazi du eta espero du bere mezua ongi ulertua izan dela. Proposatutako Herri Biltzarrak aho batez onartu duen mozioa suprefekturara igortzea.

Peio Etxeleku eta Jean-François Lacosta jaunen galderak:

1. galdera: "Berriki jakin dugu Kanboko Merkatarien Batasunak bere jarduerak lotan ezartzen zituela ezin izan duelako elkarte animatzeko bulego berririk hautatu. Ba al duzu egoera horri aurre egiteko ekimenik hartzeko asmoa. Baiezkoan, zeintzuk?"

Azuapezak adierazi du Merkatarien Batasunaren azken Biltzar Nagusia, Magis jauna izan dela, eta ez Carre jauna zeina ohiko ordezkaria baita baina ezinean, elkartearen bulegoa lotan uzteaz ohartu dena.

Biltzar hori baino lehen, Magis jaunak proposaturik, Kanboko merkataritzaren ikerketa bat egin nahi izan du, Donibane Garazin egin denaren bezalakoa. Merkatarien Batasunarekin biltzarrean Magis jaunak Marie-Eve Feverol anderea aurkeztu du, zeina Merkataritza Manager postuan misio kargudun gisa kontratua izan den sei hilabeterako (apiriletik urrira). Nahi duten merkatariekin elkartzeko da diagnostiko horren egiteko.

Honakoa izanen da bere egitekoa:

- Bertako merkataritza eskaintzaren diagnostikoa egitea,
- Kanboko merkataritza ehunaren indarguneak eta ahuleziak aztertzea,

- bertako merkataritzak dituen aukerak eta mehatxuak identifikatzea,
- Saltokien mapa bat osatu eta CNGF taularen arabeko tipologia bat osatzea,
- Kanboren merkataritza egoera beste terma-herri batzuekin alderatzea
- Galdeketa kalitatibo eta kuantitatiboak egin merkataria eta kontsumitzaileak galdekatuz, beren beharrak eta igurikitzeak ezagutzeko,
- Hutsik dauden merkataritza lokalen jabeen inkesta bat egitea, zergatik hutsik dauden ulertzeko eta aterabideak proposatzeko,
- Inkestaren datuak aztertzeako datuen tratamendu softwareak erabiltzea,

Laburbilduz, Auzapezak zehaztu du misio horren xedea bertako merkataritzaren igurikitzeak eta eskasiak hobeki identifikatzea dela, Donibane garazin eginen denaren antzera.

Misioak hiru urrats izanen ditu: 1- landa-inkesta, jada bidean dena; 2- diagnostikoaren erredakzioa; 3- azken emaitzak.

Gehitu du Merkatarien Batasunak historikoki zailtasunak izan dituela merkataria batzeko. Diagnostikoak dinamika berria bultzatu lezake. Ikerketa hori funtsezkoa da Kanboren erronkak eta aukerak ulertzeko, eta merkataritza eskaintza egokia garatzeko. Elkarrizketen akrietara agertu da bi edo hiru lagunek bulegoa isolaturik gelditu dela, beste merkatarien inplikazio eskasa deitoratuz merkataritzaren hamabostalditik haratago. Zailtasun handiena interesa sorraraztea dela irudi luke. Herriko etxeak ezin du bakarrik aritu: espero du urraspide berri batek dinamika berria abiaraziko duela, nahiz eta zailtasunak aspaldikoak eta konplexuak izan.

Sébastien Carre jaunak azaldu du denbora falta dela merkatarien inplikaziorako traba handiena, usu bakarrik direlako beren jarduerara osoa kudeatzen. Pertsona gutxi batzuek dute Merkatarien Batasuna dinamizatzen, besteak puntualki inplikatzeko dira, bereziki urte bukaerako animazioentzat. Kide berriak sarrarazteak lan handia eskatzen du, atez ate joan behar baita horien xeka. Ez da jendeak ez duela kide izana nahi, baina lehentasun kontua da. Merkataria ardura indibidualistak dira eta nor bere jardueran sentratzen dira. Nahiz eta puntualki inplikatzeko prest izan, Merkatarien Batasuna urte osoan atxikitzea lan sobera da jende kopuru txiki batentzat.

Jean-Noël Magis jaunak Merkatarien Batasunari proposatu dio diagnostikoaren emaitzak merkatariekiko bilkura batean aurkez ditzan, egitura horren inguruan dinamika berri bat abiarazten saiatzeko, herriko etxearen laguntzarekin. Helburua da elkarte heldu den urtean berri abiatzen laguntzea.

Philippe Bacardatz jaunak azpimarratu du ikerketa saltoki motei eta beharrei buruzkoa dela nagusiki, baina Batasunak pertsona motibatuak behar dituela merkatarien sarea animatzeko. Zailtasun egiten du ikerketa horrek borondateak sustatzeko izan dezakeen gaitasunaz.

Jean-Noël Magis jaunak azaldu du Feverol andereak merkatariei galdegin diela zergatik ez diren gehiago Batasuneko kide izaten, bereziki denbora faltarengatik. Merkatarien arteko lotura eskasak ere azpimarratu ditu, 3-4 pertsonak bakarrik animatzen baitute bulegoa. Helburua litzateke ikustea nola jende gehiago (10-15) mobilizatzea, ekintzetan laguntzeko, eta inkestak ez baditu arrapostu guztiak ematen, halere zenbait pista identifikatzen lagunduko du.

Philippe Bacardatz jaunak oroitarazi du orain dela hamar bat urte merkataria gazte batzuk iritsi zirela dinamika batekin, baina akitu dira eta joan. Bere ustez, ez merkataria zaharrek ezta gazteek ere ez dute lortzen dinamika bat luzaz atxikitzen, bereziki denbora faltarengatik eta aurrekontu hertsapenengatik.

Sébastien Carre jaunak oroitarazi du Covid garaian ezarri ziren eros-bonoak bezalako ekintzak ere merkataria batzuentzat zailak izan direla kudeatzeko, nahiz eta borondate onekoak

izan. Saltokien aniztasuna eta beren izaria, usu ttipia eta langilerik gabe, zaila egiten du talde batentzako elkartasuna eta inplikatzeko, zeren merkatariek lehentasunez beren jarduerara baitute kudeatu behar.

Philippe Bacardatz jaunak galdetu du ea benchmarkik egin ote den Merkataritza Batasun dinamikoak dituzten Hazparne edo Donibane Garazi bezalako beste herriekin, haiengandik inspiratzeko.,

Jean-Noël Magis jaunak azaldu du Donibane Garazi, Hazparne, Donapaleu, Maule edo Hendaia bezalako herrietan esperientzia arrakastatsuak izan direla Merkataritza Managerrak kontratatatu direlako, zeinak usu frantses estatuak partzialki diruztatzen baititu tokiko Merkataritza Batasunak laguntzeko. Hiru urteko kontratua duten manager horiek bertako merkataritza dinamika bat sortzen eta iraunkortzen lagundu dute. Horretarako Kanbok Marie-Eve Feverol kontratatatu du. Helburua da Kanboko Merkataritza Batasuna sostengatzea eta dinamika bat bultzatzea, nahiz eta merkataritza usu tokiko erakundeen azken lehentasunetako bezala ikusia izan.

2. galdera: "Zein izan dira Seaska federazioarekiko bilkurako edukiak eta segidak, balizko lanbide-lizeo baten ezartzeko aukeraz?"

Zein hurrengo urrats aurreikusten duzu eta zer neurri hartu asmo duzu gure herriak ahal ezainbat aukera izan ditzan lizeoa bere lurraldean errezibitzeko?

Auzapezak baieztatu du bilkura bat izan del Carre, Mondin, Medevielle eta bera herriaren izenean eta Gorostiaga, Etchart eta Urrutikoetxea jaunak Seaskaren izenean.

▪ Elkarrizketaren edukia:

Carre jaunak azaldu du duela zenbait hilabete harremanak lotu dituztela osasungintzako talde batzuekin, besteak beste Ramsay zeinarekin zuzenean harremanean izan baita. Zehaztu du talde horren zuzendaritzak bere Eskualdeko Zuzendariarekin, Nicolas Bodet jauna, adostu duela apirilera osasuneko goi mailako formakuntza erakunde baten irekitzeko proiektuari buruzko berrien emateko. Orduan jakinen dugu zenbat lur funts beharko luketen Beaulieu lekuan egitura horren ezartzeko.

Seaskako ordezkariak beren baldintza-agiria ezagutarazi baino lehen, Auzapezak jakinarazi zien herriak interese handia zuela leku horretan bi formakuntza egitura ezartzeko, biak izari desberdinekoak, bata osasungintzara bideratua eta bestea euskara sustatzeko goi mailako ikastetxe baten egiteko.

Gero, Medevielle jaunak Beaulieu gune aurkeztu du, txertatuak dituen pasaia eskubideak eta kokapenak.

Seaskako ordezkariak jakinarazi dute beren lizeoa 2027ko sartzerako aurreikusten dutela eta proiektuaren aurrekontua 5 eta 10 milioi euroren artean kokatzen dela. Bestalde, adierazi dute bi aukera aurreikusten dituztela: lehena lizeo orokorra litzatekeena eta bestea lanbide heziketako lizeoa (merkataritza salmenta animazioa, eraikuntza, laborantza). Bertan 40 eta 80 ikaslerentzako barnetegi baten egitea ere aipatu dute.

Sarbied arazoak aipatu eta gero, Seaskak lur funtsak urririk ukatea eskatu du, jakinez beste herri batzuek hala nola Urruña, Uztaritze, Donapaleu eta Itsasu horretarako prest zirela.

Auzapezak erantzun die terrenoa ez zela heriarena baina ToLFEna, zeinari herriak erosiko baitio, eta zergatik ez gero Seaskareki iraupen luzeko alokairu bat adostea kostua amortizatzen.

Auzapezak adierazi du lekua bisitatzeraz joatekoak direla Seaskako ordezkariekin heldu den asteazkenean arratsaldeko 5etan. Medevielle jauna haiekin joanen da proposatuko zaien lur funtsaren mugak erakusteko.

Zehaztu du herriak Seaskari kirol eta kultur ekipamenduen erabilera egutegia helarazi behar diola libre liratekeen tarteak identifikatzeko. Seaska interesaturik agertu da ekipamenduen aniztasuna eta kalitatearengatik, baina informazio horiek laster behar ditu kokapen baldintzak baloratzeko.

Jean-Paul Alaman jaunak azpimarratu du proiektu konplexua eta anbiziotsua dela eta hirigintza ikerketa sakonagoa beharko lukeela. Uste du gaur egungo THP, lehengo ikuspegi batetik egina (Beaulieu garaikoa), zurrunegia eta desegokia dela. Beraz, horrelako proiektu baten eramateko THP berrikusi behar da.

Berretsi du THP berrikusteko beharra izari handiko proiektuak errezibitu ahal izateko. Aurrekari batzuk aipatu ditu, hala nola Nettoren handitzea edo Argia egituraren eremuaren birkalifikazioa, THP berrikusi behar dela frogatzeko. Oroitarazi du aipatzen ari diren lekuak hektarea bat egiten duela, natura-eremuan badituela, zenbait ekipamendu hartzen ahalko lituzkeela (formakuntza zentroa, lizeoa eta abar) eta ez dela lehengo Beaulieuren ikuspegiarekin mugatua izan behar. Kanboren etorkizunerako antolamenduei buruzko gogoeta handinahi baten beharra adierazi du.

Auzapezak adierazi du lehen urratsa dela proiektu sustatzaileen behar zehatzak ezagutzea. Zehaztu du lehen hurbilketa horren ondotik THP edo EHP egokitu beharko dela, idatziz ukan dituen oharra kontuan hartuz.

Nettoren handitzea (400 m²) edo Argia proiektuaren izaria eta Beaulieun aurreikusten dena ez dira batera neurri berekoak.

Auzapezak zehaztu du katastroaren bilakaera eta lekuaren programazioa proiektuaren araberrakoak izan direla: lanbide heziketako proiektua ala irakaskuntza klasikoa? Azpimarratu du norabideen arabera (adibidez, laborantza ikastetxe bat baratze batekin) beharrak desberdinak liratekeela. Bukatzeko adierazi du elkarriketa fase oraindik irekia dela eta Jean-Noël Magisi eman dio hitza.

Magis jaunak adierazi du herriak THPren bilakaera aurreikusi duela proiektu horien laguntzeko, bereziki Ramsay-rena eta Seaskarena. Aldaketa ekaera bidean da lekua UBa sailkatu izan dadin, leku hoentan aukera gehien ematen duenetakoa. Sailkapen horrekin malgutasun handia izango genuke, proiektua osoki zehaztua izan gabe ere. Halere, oroitarazi du aldaketak mugatuak direla: ezin diete gune babestuei (oihanak edo natura-guneak) kalterik eragin. Seaskak eskaera bera aurkeztu duen beste herriek ere halako logika segitzen dute.

Auzapezak Herri Biltzarraren saioa 22:00etan hetsi du.

Joana LACARRA
Saioko idazkaria

Christian DEVEZE
Kanboko Auzapeza